



Arartekoaren 2023R-823-22 Ebazpena, 2023ko urriaren 9koa. Horren bidez, Lan eta Enplegu Sailari gomendatzen dio berrius dezala diru-sarrerak bermatzeko errentaren titular baten prestazioen erreklamazioa, errenta jasotzeko baldintza batik urratu ez zuelako, eta erabaki dezala zorra kentzeko ordaindu zituen kopuruak itzultzea.

Aurrekariak

1-. Herritar batek kexa bat aurkeztu zuen Arartekoan, azalduz ez zegoela ados Lanbideren jarduketa batekin, zehazki, Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errenta (DSBE) eta etxebizitzarako prestazio osagarria (EPO) eteteko hartutako erabakiarekin, bai eta bidegabe jasotako zenbatekoak itzultzeko erabakiarekin ere.

Martxoaren 25eko 2022 -2022/REV/007895- Ebazpenaren bidez, Lanbidek prestazioak eteteko erabakia hartu zuen honakoetan oinarrituta:

“-Incumplimiento de la obligación establecida en el art. 12.1.f del Decreto 147/2010: Comunicar en el plazo máximo de 15 días (...): No comunicar situación de la unidad de convivencia, e incluso presentando declaración de la renta conjunta.

-Aplicación de lo establecido en el art. 43.2 del Decreto 147/2010: suspensión del derecho a la RGI por incumplimiento temporal por parte de la persona titular o de algún miembro de su unidad de convivencia de las obligaciones asumidas al acceder a la prestación. Se aplica desde la última resolución de Lanbide, se mantenía como pareja de hecho viviendo en domicilios diferentes usted y su pareja. También viven en el mismo domicilio que su pareja, su hijo. No ha comunicado ni su patrimonio, ni sus ingresos, ni su disponibilidad para el empleo.”

Halaber, ebazpenean aurreratu zen DSBEren kontzeptuan 3.350,38 euro eta EPOren kontzeptuan 2.300,00 euro itzuli behar zituela, hau da, prestazioen titularrak 2021eko ekainean egin zuen azken berrikuntzatik jasotako zenbatekoak.

Eteteko ebazpen horren aurretik, enpleguko erakunde autonomoak entzunaldi-izapidea jakinarazi zion interesdunari. Izapide horretan balizko ez-betetzea aurreratu zuen, bizikidetzaren unitatearen osakerari buruzko honako inguruabar hauek ikusi ondoren. Jakinarazpenak hauxe zioen:





- 2007/09/13tik xxxx-en Izatezko Bikote gisa erregistratuta dago
- Erregistroko eskabidean sinatzen duten erantzukizunpeko adierazpenaren arabera (badakizu zer ondorio dituen izatezko bikotea eratzeko deklarazioa inskribatzeak).
- Izatezko bikoteak ez du indarrrik galtzen, eta kideetako edozeinek, bere kabuz, erregistroa desegitea eska dezake dagokion izapidea eginez (bikotekidea espetxean egon bada ere).
- Era berean, Ogasunak PFEZaren zure kontuan egiten zituen diru sarrerak nahikoa seinale ziren gaiari buruz galdetzeko. Gainera, PFEZaren proposamena bidali diote xxxx semea eta bere bikotekidea bizi diren bizilekura (xxxx kalea, xxxx).
- Kasu horretan, Lanbide da izatezko bikote gisa duen egoera egiaztatzeko eta DSBE jasotzeko duten pertsonen betekizunak zehazteko eta betebeharrak betetzeko aplikatzeko arduradun bakarra, gainerako zirkunstantziak beren erantzukizunari dagozkiola ulertuta.

Kexaren sustatzaileak martxoaren 1eko alegazio idazki batekin erantzun zion entzunaldi izapide honi. Ondoren, azalpenak zabaldu zituen martxoaren 22ko beste idazki batean. Kexagileak ukatu egin zuen bizikidetza unitate bat eratzten zuela Lanbidek aipatutako pertsonarekin, eta esan zuen bere bizikidetza unitatea osatzen zutela bakar-bakarrik berak eta bere alabak.

Izatezko Bikotekideen Erregistroan inskribatzeari dagokionez, Lanbiden arrazoitu zuen ezjakintasunarengatik ez zuela erregistro horretan baja emateko eskatu, eta jakinarazi zuen baita ere, 2022ko otsailaren 16an egin zuela baja eskaera. Alegazioekin batera zegokion ziurtagiria entregatu zuen.

Interesdunak, bestalde, azpimarratu zuen etxe eta udalerrri ezberdinetan errolatuta daudela 2015etik aurrera. Bere bikotekide ohiaren bizilekuari dagokionez, interesdunak, alegazioen idazkiarekin batera Espetxe Erakundearen idazkaritza nagusiak egindako "Harrera konpromisoaren aktaren" kopia bat aurkeztu zuen bere bikotekide ohiaren haren amaren etxean biziarekin lotuta; agiri horretan ziurtatzen denez, kexagilearen bikotekide ohiaren bere amaren (xxxx) etxean errolatuta dago eta bertan egiten du lo, 2015ean baldintzapeko presoaldia eman ziotenetik aurrera.

Batera egindako errenta aitopenari dagokionez, interesdunak esan zuen aitopen proposamena jaso zuela, eta inolaz ere ez zekiela hura onartzeak bere DSBEren titularraren izaerarekin lotuta eraginik izan zezakeenik. Ildo horretan, alegazioen idazkiarekin batera, BFAren Ogasunari PFEZren aitopenaren zuzenketa jakinarazi izanaren egiaztatzea aurkeztu zuen Lanbiden.





Bere semearen inguruan interesdunak esan zuen duela urte batzuetatik ez dagoela bere bizikidetzaren unitatean, eta azaldu zuen bere aitaordea izan zenaren eta haren amaren etxean bizitzen eta erroldatuta egon zela garai batean, oraindik ere harreman ona mantentzen baitute beraien artean. Azaldu zuen nahiz eta harremana duela urte batzuetatik bukatuta egon, bere bikotekide ohia bere semearen aita bezalakoa izan zela urte luzetan zehar, eta harreman hori, nolabait gaur egun ere mantendu egiten dela.

Horregatik guztiagatik, kexagileak defendatzen du bere bizikidetzaren unitatea bat etorri dela uneoro Lanbiden jakinarazitakoarekin, hau da, bere alabak eta berak osatutakoa dela.

2.- Kexagileak gora jotzeko errekurtsioa jarri zuen kexaren muina den etete ebazpenaren aurka, eta errekurtsio hori orain dela gutxi ebatzi da Lanbideren zuzendari nagusiaren 2023ko martxoaren 29ko ebazpenaren bitartez. Ebazpen horren edukia aurrerago jasoko da, errepikapenak ekiditearren.

3.- Arartekoak kexa izapidetzeko onartu ondoren, Lanbideri laguntza eskatu zion, aurreko gertaeren gaineko informazioarekin batera. Zehazki, gai hauei buruzko informazioa eskatu zuen:

- a) Izatezko Bikoteen Erregistroan baja formalizatu ez izanak jasotako prestazioak itzultzeko betebeharra dakarrela baliosteko oinarri diren lege-oinarrien azalpena, nahiz eta gaur egun Lanbideek baduen dokumentazio nahikoa egiaztatzeko ez dela *more uxorio* bizikidetzarik egon 2015. urtetik.
- b) Azaldu egin behar da Lanbideek zergatik ez zion kexagileari eskatu baja emateko Izatezko Bikoteen Erregistroan, banantzearen berri bazuen ere.
- c) Aurretiaz helarazitako oharrei buruzko Lanbideren iritzia, eta, zehazki, diru-sarrerak bermatzeko errentaren baldintzak betetzen direla egiaztatzen denean bidegabe jasotako prestazioak sortzeari buruzko aurreikuspenei buruzkoa.
- d) Berriz hasteko aurreikusitako data
- e) Aztergai den etete-ebazpenaren arabera sortu diren bidegabe jasotako prestazioak itzultzeko prozeduraren izapidetze-egoera.
- f) Kexan planteatzen den gaiarekin lotuta interesgarritzat jotzen duzun beste edozein egoera edo informazio.

4.- Lankidetzaren eskaerari erantzunez, Ararteko erakundeak Lanbideren txosten bat jaso zuen, eta bertan, errekurtsioaren ebazpeneko ideia berberak errepikatzen dira:

“Horretarako emandako entzunaldi-izapidetza epearen barruan, xxxx andreak, 2022ko otsailaren 21ean, Euskal Autonomia Erkidegoko Izatezko





Bikoteen Erregistroan indargabetze-eskaria aurkeztu zuen, erregistro horretako sarreran 2022ko otsailaren 16an sartuta, eta 2022ko martxoaren 1ean "INTERESDUNAREN ADIERAZPENA" aurkeztu zuen, 2021-02-15ekoa, "zigortuari eta xxxx jaunari" buruz, zeinaren bidez azken horrek baldintzapeko askatasunerako helbidea ezartzen baitzuen (Bizkaiko Ogasunak xxxx andreak 2020ko ekitaldirako behin-behineko likidazioa igortzeko erabili zuen helbide berbera).

Beraz, ikusita Euskal Autonomia Erkidegoko Izatezko Bikoteen Erregistroan indargabetzeko eskariaren sarrerako zigilua 2022ko otsailaren 16koa dela eta xxxx andreak, 2007ko irailaren 13tik izatezko bikote moduan inskribatuta egon arren, ezkongabe izaera azpimarratu duela, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan aurkeztu dituen eskarietan, gertaeren jakinarazpenean eta zinpeko aitortzearen ikus daitekeen bezala, nahiz eta, maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen 19.1. artikuluan arabera, inskripzioa erregistro horretan indargabetzeko eskatu zezakeen, eta ikusirik 2020ko PFEZean aitortpen bateratua egin zutela eta azken hori bere izenean igorri zela bikotekidearen helbidera, egiaztatuta geratzen da xxxx andreak ez duela bere bizikidetzak unitatearen egoera jakinarazi.

Bizikidetzak unitatearen egoera ez jakinarazteak urratu egiten du Diru Sarrerak Bermatzeko Errentaren maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 12.1.f artikuluko betebeharra; zehazki, bizikidetzak unitatearen egoeran egon diren gertaerak jakinarazteko betebeharra. Ondorioz, Dekretu beraren 43.2. artikuluan arabera, DSBE jasotzeko eskubidea aldi batez eten behar da. Eta, beraz, Etxebizitzarako Prestazio Osagarriaren urtarrilaren 12ko 2/2010 Dekretuaren 24.1. artikuluan arabera, DSBE etendakoan egokia da EPO jasotzeko eskubidea ere aldi batez etetea.

Bizikidetzak unitatearen egoera jakinaraztea esanguratsua da jakiteko ez soilik zein bizikidetzak unitate mota den (Diru Sarrerak Bermatzeko Errentaren maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 5. artikulua), baizik eta baita ere jakiteko zein diren bizikidetzak unitatearen ondarea eta diru-sarrerak (Diru Sarrerak Bermatzeko Errentaren maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 9. artikulua).

Are gehiago, adierazitako guztia ikusita pentsatzekoa da bizikidetzak unitatearen osaera ez dela argia. Horrekin bat dator Arartekoa, bere idazkian. Beraz, urratu egin da Gizarteratzeko eta Diru-sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 16.a artikuluan jasotako baldintza, horren arabera





bizikidetzaren unitate bat osatu behar baita, Diru Sarrerak Bermatzeko Errentaren maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 5. artikuluan ezarritako kasuetan.

2022ko apirilaren 6an, xxxx andreak gora jotzeko errekurtsioa jarri zuen etendura-ebazpenaren aurka (2022/REV/007895). Errekurtso hori ezetsi egin da, 2023ko martxoaren 29ko ebazpenaren bidez, hemen azaldutakoa oinarri hartuta.”

Lanbidek haxe azaldu zuen oker jasotako prestazioak sortzearen inguruan:

“Prestazioak, bestalde, berrabiarazi egin dira 2022ko ekainaren 25eko ebazpenaren bidez (2022/REV/062883), 2022ko maiatzaren 1etik aurrerako ondoreekin. Bertan, indarrak gabe geratzen da 2022/REV/007895 prozedura, DSBEren 3.350,38 € itzuli beharrarekin lotuta, eta arrazoi horien zioz 3.350,35 € itzuliko direla jakinarazten zaio. Era berean EPOn itzuli beharreko 2.300 euroak mantentzen dira, 2022ko ekainaren 25eko ebazpenean jakinarazita (2022/REV/007895).”

5-. Enpleguko erakunde autonomoa prestazioak ordaintzen hasi zen berriz ere 3 hilabetez etenda egon eta gero, hain zuzen ere, 2022ko ekainaren 25eko ebazpenaren bitartez.

Bere aldetik, itzulketa betebeharrari dagokionez, enpleguko erakunde autonomoak, 2023ko maiatzaren 25eko Ebazpenaren bidez, erabaki zuen 3.688,30 € itzuli behar zirela DSBEren kontzeptuan, eta 2.300 € EPOren kontzeptuan. Zenbateko horrek hasierakoa gainditzen du, Lanbidek egindako bigarren berrikuspen batean berrikusitako aldiari 3 hilabete gehitu baitzitzaizkion, eta hori dela-eta, zorra handitu zen: hasieran DSBEko 3.350,38 € eta EPOko 2.300,00 € ziren, eta gaur egun, DSBEko 3.688,30 € eta EPOko 2.300,00 € dira.

Era berean, enpleguko erakunde autonomoak bere prestazioa berrabiatzean sortu ziren atzerapenak konpentsatu ditu, eta gaur egun hilero 30 euroko kuota kentzen zaio bere DSBEren nominatik.

Aurretiaz, itzulketa prozedura hasteari erantzunez, interesdunak erakunde autonomoari jakinarazi zion Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak (INSS) egitate berberengatik hasitako itzulketa prozedura bat ezeztatu zuela (bizitzeko gutxieneko diru-sarrerari lotutakoa), Lanbideri DSBEarekin lotuta bidali zizkion agiri eta azalpen berberak eman baitzituen. Halaber, INSSren Probintzia Zuzendariaren 2022ko urriaren 13ko ebazpenaren kopia atxiki zuen. Haxe ebazten zen bertan: “anular las actuaciones realizadas hasta la fecha y proceder al archivo del





expediente”, honetan oinarrituta: “Las alegaciones presentadas el 28/09/2022 a las que acompaña documentación relativa al domicilio de su ex pareja xxxx, son estimadas en su totalidad, por lo que procede la anulación del expediente deudor”.

Arartekoak, kexa espediente hau aztertzerakoan garrantzitsutzat jo du INSSek itzulketa prozedura ezeztatu izana.

Gogoetak

1.- Lanbidek, etete ebazpenarekin bat etorriz, erabaki zuen kexagilearen prestazioen ordainketa etetea¹, orduan indarrean zegoen 147/2010 Dekretuaren 12.1.f artikuluko betebeharra urratu baitzuen.

Etete ebazpenaren zioak jasotzen ez diren arren, ondoren, errekurtsuaren ebazpenean, enpleguko erakunde autonomoak betebeharren ez betetze hori lotu zuen bizikidetzaren unitatea zehaztearen betekizunarekin eta nahikoa baliabide ez izatearekin, hurrenez hurren Dekretu beraren 9.1 eta 9.3 artikuluan jasota daudenak 5. artikuluekin lotuta; azken horretan definitzen da bizikidetzaren unitatea, hain zuzen ere.

Enpleguko erakunde autonomoaren arabera, ez da posible prestazioen titularren bizikidetzaren unitatea zehaztea, ez baitzuen bizikidetzaren unitate horren inguruabar batzuen informaziorik eman, besteak beste: Eusko Jaurlaritzaren izatezko bikotekideen erregistroan ondorio horietarako inskribatuta egotea bere bikotekide ohia izan zenarekin; pertsona horrekin berarekin PFEZren baterako aitortpena egiteko Bizkaiko Foru Ogasunak bidalitako aitortpen proposamena onartu izana; eta baita ere, bere semea, denbora batean bere aitaordea izan zenaren eta haren amaren etxean bizitzen eta erroldatuta egotea.

¹ 147/2010 Dekretuaren 12.1 f) artikulua: “Prestaziorako eskubidea aldatzea, etetea edo azkentzea ekar dezaketen eta ondoren adierazten diren gertakariak sortzen diren unetik aurrera zenbatzen hasi eta gehieneko hamabost eguneko epean udalari gertakari horien berri ematea:
f.1.– Bizikidetzaren unitatearen osakeran eragina duten gertakariak, eta edozein kasutan:
– Bizikidetzaren unitateko kideren baten heriotza;
Titularra edo bizikidetzaren unitateko beste edozein kide egoitza-zentro publiko edo pribatuetan, zentro sanitario publiko edo pribatuetan, espetxeetan, desintoxikazio-zentroetan edo harrera-zentroetan sartzea, hilabeteko edo gehiagoko aldi baterako;
Bizikidetzaren unitatea uztea eta titularra ohiko bizilekutik ateratzea;
Adopzioa, familiako harrera iraunkorra edo adopzio aurrekoa, edo tutoretza;
Titularrekin laugarren edo bigarren mailarainoko odol-ahaidetasuna edo ezkon-ahaidetasuna, hurrenez hurren, duen pertsona bat bizikidetzaren unitatean sartzea;
Bizikidetzaren unitatearen osakeran eragina duen beste edozein aldaketa.”





Aurreko guztiak ez ziren bateragarriak DSBE eskatu zuenean bere bizikidetzaren unitatearen osakerari buruz esan zuenarekin, ziurtatu baitzuen bere egoera zibila ezkongabea zela, eta bere bizikidetzaren unitatea bakarrik berak eta bere alabak osatzen zutela. Egiaz, aurreko guztia interpretatzean uste daiteke DSBEren titulartasunaren inguruan ez zela zuzen jokatu, eta betebeharren ez betetze gisa tipifikatu ahal izango litzateke baita ere.

2-. Lanbideren txostenaren arabera, betebeharrak ez betetzea baldintzak ez betetzearekin parekatzekoa litzateke, zehazki, bizikidetzaren unitate bat eratzearen baldintza ez betetzea, eta horren ondorioz, nahikoa baliabide ez izatea. Defendatzaile hau ez dago horrekin ados, berrikuspen prozedurarengatik kexagileak hainbat agiri eta azalpen eman baitzituen, eta horiek indargabetzen baitzuten uste izatea bere bikotekide ohiarekin bizikidetzaren unitate berbera osatzen zuela.

Eusko Jaurlaritzaren Erregistroan bere antzinako bikotekidearekin izatezko bikote gisa inskribatuta jarraitzeari dagokionez, kexagileak aitortu zuen ezjakintasuna zela eta ez zuela erregistro horretan baja eman, baina arrazoitu zuen 2015etik aurrera, ez duela inolako ezkontide edo antzeko harremanik izan berarekin.

Beste alde batetik, elkarrekin bizitzearen inguruan, kexagileak udalerriri eta etxe ezberdinetako errolda ziurtagiriak aurkeztu zituen. Halaber, Espetxe Erakundearen idazkaritza nagusiaren "Harrera konpromisoaren akta" aipatu zuen bere bikotekide ohiaren amaren etxean bizitzearekin lotuta, 2015etik aurrera baldintzapeko presoaldia jaso zuenetik aurrera, hain zuzen ere. Horrenbestez, egiaztatuta geratu zen udalerriri eta etxe ezberdinetan bizi zirela.

PFEZren aitortpenari dagokionez, garrantzitsua da argitzea kexagileak ez duela jarrera aktiborik izan, bakarrik Bizkaiko Foru Ogasunaren proposamena onartu baitzuen. Ondoren, Lanbiden administrazio horretan aurkeztu zuen zuzenketa eskaeraren kopia eta zerga aitortpena aldatzeko eskaera onetsi izanaren ondorengo ziurtagiria entregatu zituen.

Azkenik, kexagileak enpleguko erakunde autonomoan jakinarazi zuen **INSSek bere alegazioak onartu zituela** bizitzeko gutxieneko diru-sarrera itzultzeko prozeduran; **azken hori bere bizikidetzaren unitatearen eraketarekin lotutako egitate berberengatik hasi zen**. Horrekin lotuta, Lanbiden INSSren Probintzia Zuzendariaren 2022ko urriaren 13ko ebazpenaren kopia atxiki zuen. Hauxe ebazten zen bertan: "anular las actuaciones realizadas hasta la fecha y proceder al archivo del expediente", honetan oinarrituta: "Las alegaciones presentadas el 28/09/2022 a las que acompaña documentación relativa al domicilio de su ex pareja xxxx, son estimadas en su totalidad, por lo que procede la anulación del expediente deudor".





Arartekoaren iritziz, Lanbidek froga batera baloratu izan balu, ondorioztatuko litzateke, INSSek egin zuen bezala, kexagileak eta bere bikotekide ohiak gaur egun ez dutela izatezko bikotea osatzen.

3- Horrekin lotuta, Arartekoak izatezko bikoteen eta ezkontza harremanen eta antzekoen araudiari eta jurisprudentziari buruzko zenbait ohar egin nahi ditu.

2/2003 Legeak, maiatzaren 7koak, izatezko bikoteei buruzkoak, 2. artikuluan xedatzen du izatezko bikotearen kontzeptua: "Lege hau aplikatzeko, izatezko bikotea da **bi pertsonaren arteko elkartzeko askearen ondorioa; pertsona horiek adinez nagusi edo adingabeko emantzipatuak izan behar dute**, gaitasun osoa izan behar dute, eta ezin dute euren artean lerro zuzeneko odol- edo adopzio-ahaidetasunik eduki, ez eta alboko lerroko bigarren mailako odol-ahaidetasunik ere. Harreman sexual edo afektiboa izan behar dute elkarren artean, eta berdina izango da pertsona horiek sexu berekoak edo desberdinekoak izatea. Gainera, bikoteko kideek, ez bata ez besteak, ezin dute ezkontza edo izatezko bikotearen bidezko loturarik izan beste inorekin ere".

Era berean, lege bereko V. kapituluak aurreko araudirako izatezko bikotea azkentzea arautzen du eta horretara iristeko arrazoiak zehazten dira. Hala, araudiko 18. artikulua araberak, izatezko bikotea ondorengo arrazoiengatik azkenduko da:

- a) Kide biak horretan ados jarri direlako.
- b) Bietako batek hala erabaki duelako, eta besteari egiaztatze moduan jakinarazi diolako.
- c) Bikotea osatzen dutenetako bat hil delako edo hildakotzat jo dutelako.
- d) Izatezko bikotea osatzen dutenak elkarrekin ezkondu direlako.
- e) Bikotea osatzen dutenetako bat ezkondu egin delako."

Horri lotuta, 19. artikulua haxe dio "*Bikotea amaitzeak dituen ondorio eta betebeharrak*", honako hau ezartzen da: "Izatezko bikotea amaitzen baldin bada, bi kideek, edo bi kideetako batek –erabakia bakarrarena baldin bada–, kasuan kasuko erregistroko izen-ematea bertan behera uzteko eskatu beharko dute. Ez kide batek ez besteak ezin izango du lege honen arabera beste bikoterik osatu, alde aurrekoa bertan behera uzten ez baldin bada. (...)".

Aurreko guztitik ondorioztatzen da **izatezko bikotea ez dela hausten edo iraungitzen erregistroan baja eskatzearekin; nahikoa da 18. artikuluan aipatzen den arrazoiaren bat egiaztatzea.**





Egia da kexagileak inskribatu eta denbora bat igaro ondoren, hau da, izatezko lotura amaitu zenean, betebeharrak hori bete behar izan zuela. Hala eta guztiz ere, ez egin arren, ez du esan nahi halabeharrez bikotearekin harremana zuenik. Bikote harremana amaituta zegoen, nahiz eta inskripzioa ezabatzeke erregistroan nahitaezko jakinarazpenik ez egin.

Arartekoaren iritziz, eskakizuna ez betetzeak ez du esan nahi Lanbidek automatikoki adierazi dezakeenik bizikidetzaren unitatea berak adierazitakoa (hau da, bakarrik berak eta bere alabak elkarrekin osatutakoa) ez zenik.

Argudio berberari eutsiz, **ezkontza harremanetan izatez banantzea kode zibilaren ezkontza araubidean aurrez ikusita dago**. Indarreko ezkontzaren lege araubidean izatez banantzeak lege ondoreak ditu. Aurrekoaren harira, irabazpidezko sozietatearen desagitea eta likidazioa arautzean, kode zibilaren 1393.3 artikulua ondorengoa dio: "Elkarren arteko adostasunez edo egoitza uzteagatik urtebete baino gehiago izatez banandua egotea".

Puntu honetan, jurisprudentziak ezkontze harremana edo antzekoa dagoela zehazteko beharrezkotzat jotzen dituen baldintzak aipatu behar dira. Doktrina jurisprudentzialaren arabera, **more uxorio elkarbizitzan** zenbait baldintza bete behar dira, Auzitegi Gorenaren 1992ko maiatzaren 18ko 469/1992 Epaian azaltzen den bezala: "la convivencia more uxorio ha de desarrollarse en régimen vivencial de **coexistencia diaria, estable, con permanencia temporal consolidada a lo largo de los años, practicada de forma externa y pública** con acreditadas actuaciones conjuntas de los interesados"².

Azkenik, lagungarria da baita ere nabarmentzea 2023ko martxoaren 29an indarrean sartu zen DSBEn lege arautzaile berriak — **14/2022 Legea**, Diru-sarrerak bermatzeko eta inklusiorako euskal sistemarena— ezartzen duela, kontrakoa frogatu ezean, **uste izango dela ezkontza harremanaren antzeko harremana dagoela gutxienez** azken lau urteetan **bi urteko bizikidetzaren egon denean** (elkarren segidakoak izan, edo ez)³.

² Zentzu berean, Gasteizko 3. Administrazioarekiko Auzien Epaitegiak urtarrilaren 20ko 9/2014 Epaian esan zuen "more uxorio" ezkontza elkarbizitzaren existentzarako honakoa behar dela: "concurra una comunidad de vida y de intereses a la manera de unión matrimonial, siendo preciso para apreciar su existencia que se dé una convivencia que reúna las notas de **habitualidad, estabilidad y permanencia en el tiempo**, con la creación de apariencia similar al conyugal, no siendo suficiente la convivencia esporádica, circunstancial u ocasional, ni tampoco la simple relación afectiva, aunque sea prolongada en el tiempo, sino va acompañada de esa **comunidad de vida**, con las notas indicadas, que permita asimilarla a la marital."

³ 14/2022 Legea, abenduaren 22koa, 28.artikulua, ezkontza-harremanaren antzekoari buruzkoa: "1.25. eta 26. artikuluetan xedatutakoaren ondorioetarako, ezkontzaren antzeko harreman hartzen da adin nagusiko bi pertsonen edo adingabeko bi emantzipatutakoen lotura afektiboa,



Agerikoa denez, egungo jurisprudentziak eta araudiak garrantzia berezia ematen diote alderdi bien arteko elkarbizitza komunari, eta kexagileak entregatutako dokumentazioaren arabera, kasu honetan ez da horrelako elkarbizitzarik existitu.

4-. Lanbidek 2021eko ekainetik 2022ko otsailera ordaindutako prestazioak itzultzeko eskatu du, guztira 5.988,3 €.

Hala, Arartekoak positibotzat jotzen du enpleguko erakunde autonomoak agindu ez izana kexagileak azken 4 urteetan jasotako zenbateko guztiak itzuli beharra; aldi hori, une horretan aplikatzekoa zen araudian jasotako preskripzio epearen arabera, Lanbidek berrikusi ahal izango lukeen gehieneko epea izango litzateke. Hori egin beharrean, erakunde autonomoak bakarrik deklaratu zuen prestazioaren azken eguneratzetik aurrera –2021eko ekaina– zenbatekoak oker jaso zituela, eta horrek, nabarmenki gutxitu du zorretan duen zenbatekoa.

Hala eta guztiz ere, Arartekoaren iritziz, Lanbidek oker jasotako prestazioengatik egindako deklarazioa hobetu daiteke, berrikuspen prozedura izapidetu eta gero eta kexagileak eman zuen dokumentazioa ikusirik, **frogatuta geratu baitzen baldintzak ez zirela urratu, bakarrik betebeharrak urratu zirela.**

Diru-sarrerak bermatzeko errentaren 147/2010 Dekretuaren 56. artikulua arabera: “Aldatzeko, eteteko edo azkentzeko prozedura baten ondorioz edo beste edozein zirkunstantziagatik diru-sarrerak bermatzeko errenta bidegabe jaso dela egiaztatzen bada, titularrak jaso behar ez zirela jasotako prestazioak edo prestazioarengatik jaso behar ez zela jasotako zenbatekoa itzuli behar dituela ezarriko du foru-aldundi⁴ eskudunak.”

Aurreikuspen horrekin bat etorriz, Arartekoaren iritziz, **bakarrik itzuli beharko da baldintzak betetzeari uzten bazaio.** Alderantziz, betebeharren bat bete ez denean eta ondoren egiaztatzen denean horrek ez duela esan nahi baldintzak bete ez direnik, erakunde honen iritziz, ez da prestazioak itzultzeko eskatu behar, prestazioen titularrak egiaztatu baitu betetzen zituela horiek jasotzeko baldintzak.

ahaidetasun-harremanik izan gabe lerro zuzenean edo alboko lerroan –bigarren mailaren barruan–, ezkontuta egon gabe edo, egotekotan, izatez bananduta egonda, egoitza berean modu egonkor eta nabarian bizi badira elkarrekin. Izatezko bikote edo loturen legerian ezarritakoaren arabera izatezko bikoteen erregistroren batean izena emanda egotea, harremana agiri publiko batean formalizatuta edukitzea edo zuzenbidean onartutako bestelako bideen bitartez frogatzea aski arrazoi izango da ezkontza-harremanaren parekoa dagoela aitortzeko.

2.Kontrarik frogatu ezean, ezkontzaren antzeko harremana dagoela ulertuko da honako inguruabar hauetatik edozein suertatzen denean: **a) Azken lau urteetan gutxienez bi urtez elkarrekin bizitzea, etenik gabe edo etenekin.** b) Elkarrekin bizi direnek ondorengo komunak izatea”.

⁴ Lanbide



Aztergai dugun kasuan, interesdunak azalpenak eta agiriak entregatu eta gero — INSSek onartu zituenak bizitzeko gutxieneko diru-sarrerarekin lotuta—, **Lanbidek, erakunde honen ustez, ulertu behar izan zuen bizikidetzaren unitatearen eraketa argituta geratu zela, eta koherentziaz, ez zuen hasi ezta ebatzi behar izan ondorengo itzulketa prozedura.**

Errealitate materiala gertatu da, *de facto* banantze baten existentzia alegia, eta hori errealitate formalaren aurkakoa da, edo gutxienez errealitate hori nabarmenki aldatzen du: hau da, kexagileak Izatezko Bikotekideen Erregistroko inskripzioa ezeztatu ez izana eta Bizkaiko Foru Ogasunak egindako PFEZren aitorten bateratuaren proposamena onartu izana.

3 hilabeteen zehar DSBEren ordainketa etetea erantzun orekatua izan zen jada interesdunak izandako jarduketaren edo ez egitearen aurrean. Aurrekoaz gain 5.988,3 € eskatzea Arartekoaren ustez **proporzioz gaindikoa da prestazioen titularren jokaera ez zuzenarekin lotuta**, bakar-bakarrik izan baitzen Izatezko Bikotekideen Erregistroan bajarik ez eskatzea bere ezkontide ohiarekin zuen harremana bukatu zenean, eta BFAk jada bere bikotekidea ez zenarekin batera PFEZren baterako aitortpena egiteko bidalitako proposamena onartzea.

Hala, kontuan izan behar da **guraso bakarreko familia dela, ahulezia ekonomiko eta sozialeko egoeran daudela eta DSBE/EPOren titular izateko baldintzak betetzen dituztela, baina zenbait akats egin zituela**, hau da, prestazioari lotutako betebeharrak batzuk ez betetzea.

Aurreko guztiarengatik, ebazpenaren argudioei jarraikiz, itzulketa prozedura ebatzita eta itzulketa betebeharrak deklaratu eta gero, erakunde honen iritziz, **Lanbidek itzulketa prozedura berrikusi behar du INSSek itzulketa betebeharrak ezeztatzearekin hartutako erabakiarekin bat etorriz**, Lanbidek DSBEren kontzeptuan ordaindutako zenbatekoak itzultzea eskatzeko erabiltzen ari den egitate berberengatik.

Horregatik guztiagatik, eta otsailaren 27ko 3/1985 Legeak —erakunde hau sortu eta arautzekoak— 11.b) artikuluan ezarritakoaren arabera, honakoa luzatzen zaio Lan eta Enplegu Sailari

GOMENDIOA

Aurreko azalpenetan oinarrituz, jasotako prestazioak itzultzeko erreklamazioa berrikusi dezala, interesdunak ez baititu DSBEren eta EPOren titular gisa dituen baldintzak urratu, eta horrenbestez, erabakitzea orain arte zorra ordaintzeko ordaindutako zenbatekoak itzultzea.

